



San Markoseko Mankomunitateak hiri hondakinak kudeatzeko Plan Integrala onartu zuen otsailaren 26an. Planak 2002-2016 epea hartzen du. San Markoseko zabortegia 2006rako beteta egongo da, eta ondorioz, derrigorrezkoa da zaborrekin zer egin zehaztea. Irizpide nagusiak jarri dira, baina horiek nola gauzatu erabakitzeke dago oraindik.

Bixente Merino

San Markoseko Mankomunitateak onartu berri duen planak aurrerantzean zabor gutxiago sortzea eta sortzen dena berriro erabiltzea edo bertatik energia lortzea du helburu. Helburu hau lortzeko, materia organikoa ongarri bihurtzeko fabrika bat, zenbait garbigune, birziklapena bultzatzeko kanpainak eta errausgailua aurreikusi ditu mankomunitateak. Kudeaketa plan honekin, Europako araudiak bete nahi dira.

Plan honek Gipuzkoako biztanleen erdiari eragiten dio, Astigarraga, Hernani, Oiartzun, Lasarte, Usurbil, Errenteria, Lezo, Pasaia, Urnieta eta Donostiak osatzen

baitute San Markoseko Mankomunitatea. Plana EAJko, PSE-EEko, PPko, eta EAKo ordezkarien botoekin onartu zen eta Sozialista Abertzaleak taldeko ordezkariak aurkako botoa eman zuten.

Aldeko botoa eman zuten alderdi poli-


**Planaren arabera,
zaborraren %46
birziklatu nahi da
eta %54 erraustu**

tikoen arabera, San Markoseko zabortegia 2006an beteta egongo denez, derrigorrezkoa zen horrelako plan bat berehala onartzeari. Alderdi hauentzat, gainera, errausgailua zabortegiaren alternatiba egokia da. San Markoseko Mankomunitateko presidente eta Oiartzungo alkate Xabier Landaren iritziz, ordea, plana nola gauzatu den ez da zehaztu, eta hor dago, hain zuzen, gakoa. "Planaren alde egin dutenek planteamentu zehatza egin behar dute, baina ez dute egin, onarpena erabaki politikoa izan zelako. Eztabaida ez da plana ingurumena errespetatuz egin ote den, baizik eta nola gauzatu den", adierazi digu Xabier Landak.

Zabor gutxiago sortu

Planaren helburu nagusietako bat zabor gutxiago sortzea da, prebentzioa, alegia. Horretarako, publizitate kanpaina handiak egin eta merkataritza guneekin, erietxeekin, hotelekin, eskolekin eta antzekoekin akordioak bultzatuko dira. "Akordioak lortu behar ditugu zabor gutxiago sortzeko", esan digu San Markoseko Mankomunitateko gerente Iñaki Castillok.

Gaur egun, San Markoseko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan, zaborra, urtez urte, %6,6 gehitzen da, eta planak %1,6 jaiste aurrerikusi du. Baina, helburu hau lortzeko, zailtasunak izango direla aurrerikusi du planak berak. Izan ere, zaborra gutxitzeko, beharrezkoa da ekoizle handiengana iristea, eta arlo horretan, udalek ez dute eskumenik. Esaterako, plastikozko boltsak erabiltzea, produktuak plastikoan bilduta saltzea, latak erabiltzea eta abar ekoizleen esku dago, eta horien inguruko araudiak Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak egiten dituzte. Xabier Landak esan digenez, "zaborra murrizteko ahalegina herritarri eskatzen zaio, baina zabor edo hondakin asko sortzea ez da herritarren errua, baizik eta merkatuan hondakin hori jartzen dutenena". Ilde horretatik, Europako herrialde batean freskagarrien ontzietan hartu duten erabakia aipatu du mankomunitateko presidentea. "Europako herri batean debekatu egin dituzte latetan datozen freskagarriak".



rriak, eta horren ordez, beirazko ontzietan datozenak erabiltzen dituzte, gero birziklatu ahal izateko", adierazi digu. Landak hemen ere horrelako erabakiak hartu beharko lirakeela uste du. Gainera, "enpresei hondakinak sortzeagatik zigorrik jartzen ez bazaie, hondakin kopu-

lortzea. Materia organikoa ontzi berezi batzuetan botatzea proposatu du planak, gero hortik ongarria egiteko. Sistema honen bidez, materia organikoen %4-%6 birziklatzea espero da. "Merkaoiartzun eta Merkabugati bezalako guneetan sortzen diren arrain, fruitu eta barazki hondakinak ontzi batzuetara botako dira. Gune


rua jaiste aila izango da", dio Landak.

Energia lortu

Zakarra gutxitzea ezezik, sortzen diren zaborretatik energia lortzea ere aurrerikusi du planak. Energia lortzeko bi arlo bereizi ditu: materia birziklatzea, bategatik, eta bestetik, errausgailuaren bidez hondakinetatik energia ateratzea.

Arlo honetan Plan Integralak proposatu dituen helburuak honakoak dira: sortzen diren hondakin guztietatik %45,8 birziklatzea eta %54,2 erraustea.

Orain arteko birziklapenaz gain, planak birziklatze mota berezi bat ere aurrerikusi du: materia organikotik ongarria



Iñaki Castillo: «Mirariak beharko ditugu zaborrari aurre egiteko»

horietara erosketak egitera doazen merkataritxiek ere dendetako hondakinak botako dituzte ontziotan, eta horrela, materia organikoa kudeatzeko sistema sortuko dugu», adierazi du mankomunitateko gerenteak.

Eguzki mugimendu ekologistak materia organikoaren tratamenduaren aldeko jarrera sutsua du, eta planak arlo honetan jarritako helburua "pobrea" dela uste du. Eguzkiren proposamenaren arabera, materia organikoaren bilketa, merkataritza gune handietan ez ezik, herritarren artean ere egin beharko litzateke. "Badakigu ez dela %100 jasoko, baina paperaren, beiraren edo plastikoen kasuan bezala, %40, %50 edo %60 jasoko litzateke. Emaitza egiten den kanpainaren arabera



izango litzatekeela uste dugu, eta guk bide hau proposatu nahi dugu", adierazi digu Eguzkiko kide Juan Mari Beldarrainek.

Plan Integralaren arabera, ez dago materia organiko gehiago ongarri bihurtzerik, ez baitago gero ongarri hori bideratzeko merkatu nahikorik. Eguzkikoak, ordea, ez daude ados eta San Markoseko Mankomunitateko presidentea ere ez. "San Markosen birziklatzen dugun egurra Espainiara eramaten dugu, eta ongarri edo konpost-arekin berdin egin daiteke. Eskariaren izenean konposta mugatzea ez zait serioa iruditzen", dio Xabier Landak.

Errausgailuaren ika-mika

Birziklatzen ez diren materialentzat errausgailua jartzea aurreikusi du planak. Europako Batasunak hondakinak zabortegira botatzeari buruzko araudia zorroztu du.

Orain arte hondakinak zabortegira botatzen ziren arren, aurrerantzean hondakin horiei etekina atera nahi zaie. Iñaki Castillo gerentearen arabera, "horretarako, biderik aproposena errausgailua da; zaborra zabortegira botatzea baino aproposagoa da erraustea". Izan ere, zaborra errez gero, energia sor daiteke. Dena dela, errausgailuak badu muga: mankomunitateak dioenez, ezin izango da sortutako zaborraren %60 baino gehiago erre. Ildo honetatik, galdera bat planteatu du Xabier Landak: "Zer gertatuko da sortzen den zaborraren %40 birziklatzea lortzen ez bada?".

Errausgailuak sor dezakeen arriskua ere eztabaidagai da. Xabier Landak nabarmendu duenez, mundu osoan dago errausgailuei buruzko eztabaida. "Hor daude Johannesburgo eta Kyotoko akordioak. Errausgailuaren gasek negutegi efektuaren ondorioak areagotu egiten dituztela diote", esan du Landak.

Badago ika-mika sortzen duen beste gai bat ere: errausgailuak inguruan zabortegia behar ote duen. San Markoseko Mankomunitateko gerentearen ustez, "errausgailuak ez du zertan aldamenean zabortegirik izan. Materiala erre ostean, %30 hondakinak dira. Hortik, %27 zepa da, eta hau errepideak egiteko oinarri gisa erabiliko da. Beste %3 errausak dira. Hondakin hauek arriskuak dira, eta modu berezi batean tratatu beharko dira".



Josune Itz. de Albeniz

Errausgailua jartzea erabaki dute, baina ez da zehaztu non egongo den


Mankomunitateko presidente Xabier Landaren ustez, ordea, "errausgailuak bi zabortegi behar ditu, eta planak ez dio ezer horri buruz". Eguzkiren ustez ere, "errausgailuan, erreketan egin ondoren, %30 errausak dira eta, hondakin horiek botatzeko, beste zabortegi bat egin beharko litzateke. Gainera, horrek ere ez luke arazoa erabat konponduko".

Argitu gabeko beste galdera bat da errausgailua non egingo ote den, planak ez baitio ezer kokapenari buruz.

Eta Juan Mari Beldarrain Eguzkiko kideak planaren beste arazo bat aipatu nahi izan du: "helburu pobreak izateaz gain, garestia da. Ez dute esan, baina zaborren zerga bikoiztu egingo digute".

Hondakinak murriztu

Orain arte esandakoak ia zabor mota guztietarako balio du. Hala ere, badira birziklatu edo erraustu ezin diren zaborrak. Oro har, gutxi dira, salbuespena; etxebizitzetan berritze lanak egiten direnean, adibidez, sortzen diren hondakinak (harriak). Dena dela, planak dioenez,



mankomunitatea haiei ere etekina ateratzen ahaleginduko da.

Helburu hauek guztiak gauzatu ahal izateko, erlojuz kontra lan egin beharko

dute mankomunitateko kideek. Izan ere, 2006rako ez da San Markoseko zabortegia izango. "Mirariak egin beharko ditugu zaborraren arazoari aurre egiteko", esan digu Iñaki Castillok.

